Maiatzaren Lehena. Langileok borrokan. Euskal Herria aldaketa bidean

Nork esan zuen ezinezkoa zela? **Euskal Herria aldaketa bidean da, borrokan garen langile guztioi esker**. Lantokietan irekitako hamarnaka gatazketan lan eskubideen eta eskubide sozialen defentsan jarraitzen dugu. Borrokak egin gaitu, borrokan jarraitzen dugu, eta hain zuzen ere aurtengo Maiatzaren Lehenean borrokan diren langileen protagonismoa eta ekarpena aitortu eta aldarrikatuko dugu.

Euskal langileon kontrako erasoaldia ez da baretu. Lantokian zein kalean, eskulotuta eta mutu, eskubiderik gabeko herritar nahi gaituzte. Finantza sistemak eta multinazionalek erabakitzen dituzte gaur politikak, lan merkatua desarautu dute, prekarietatea, langabezia eta pobrezia izurrite bilakatu dituzte. **Langile borrokari esker ez balitz, oihaneko legea kapitalarentzat eta basamortu gorria langileontzat, besterik ez genuke izango**.

Borroka sindikalaren premia gaur inoiz baino ageriagokoa da. Euskal sindikalgintzak harresia jarri dio euskal langileen kontrako oldarraldiari. Eta, gainera, ez gara horrekin konformatu. **Bestelako eredu sozial, politiko eta ekonomikoa aldarrikatzen dugu, eta alternatiba horren eraikuntza gaurdanik martxan da**.

Maiatzaren Lehena beti da garrantzitsua sindikatuarentzat. Aurtengoa berezia dugu, LABen sorreraren 40.urteurrena ospatzen ari garelako. Egindako ibilbideak eman digun eskarmentutik eta aurtengo hauteskunde sindikaletan lortutako babesaren bultzadarekin, etorkizunera begira jartzeko unea dugu orain. Eta tamainako erronka dugu esku artean: eredu sindikalaren eztabaida, Euskal Herriak behar duen sindikalgintza eredua finkatu eta gauzatzeko.

Arduraz, konpromisoz eta ilusioz, bidea egiten jarraitzea dagokigu. **Langile guztien defentsa da gure eginkizun behinena, eta horretarako lantokietan zein kalean, borrokarako eskaintza eta proposamen eraginkorrak egiten jarraitzeko konpromiso irmoa dugu**.

Munduko militantziarik onenarekin, eta milaka euskal langile borrokalariren indarrarekin, lortuko dugu.

Gora langile borrokalariak!

Gora LAB! Gora Maiatzaren Lehena!